

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 7a / 560. zenbakia



Aitonak-eko inaugurazioa 1972an.

ERRETIRATUEN EGOITZAREN HISTORIA
Xabier Ibartzabalen liburua aurkeztuko dute gaur

PILOTA: JOKIN ETXANIZI ELKARRIZKETA/10 • ANTZERKIA: UMEENDAKO IKUSKIZUNA BIHAR MUNIBEN/12


SAIO BEREZIA

Prestige:
orain dela urtebete
bizitakoa gogoan

Martitzenean, azaroaren 11n
20:30ean



*Ikusiko
duzu!*



HALCOURIER BERGARA

MEZULARITZA-ZERBITZUA

Partikularrendako eta
industriendako
eguneroko zerbitzua


ZABALDU BERRIA!

JUAN XXIII PLAZAN

Juan XXIII Plaza
Tel. 943 76 98 51 Faxa: 943 76 98 52



ATREBENTZIAEZPADA/ Perretxikutara jutia gustatzen jatzu? Tenporadia dan bittartian jutun za?



JOSE ANGEL UGALDE
70 urte



MARI KARMEN MARKULETA
53 urte



ANGEL BAZTERRIKA
43 urte



JULI GALVEZ
52 urte



AGUSTIN MONTILLO
50 urte



ADRIAN VASILACHE
29 urte

Perretxikuak neure terrenuan batzen ditudu, baiña ni neure jataillia ez naiz. Lanpernak, piñutalak eta horretxikuak batzen ditudu eta familiakuei-eta emoten jeta. Neu ez nabe zorutzen.

Ez, ez dot bat bera be eza gutzen eta ez daukat konfiantzarik. Mendira jua eta perretxikuak batzia gauza polita da, baiña ez naiz fiatzen. Gizona ibiltzen da batzutan.


Neri jatea gustatzen jat. Ez daukat perretxikutara jua teko ohiturarik. Mendixan ibiltzen naiz, baiña perretxikuak batzen ez naiz ibiltzen. Jatia bai, gauza ederra da perretxikuak jatia.

Nik neuk ez daukat horretarako astirik, baiña gizona eta semia asko ibiltzen dira eta ekartzen ditudu perretxikuak etxera. Neuri bereziki niskaluak gustatzen jat.

Noizian behin jua izan naiz, baiña ez daukat ohiturarik, ez naizelako askorik fiatzen. Mendixan ibilli dezente ibiltzen naiz. Ondduak jatia ikaragarri gustatzen jat.

Egia esateko, ez daukat horretarako denborarik; bestela, juango nitzake. Perretxikuak jatia izugarri gustatzen jat eta lagunek ekartzen ez badoste, askotan erosten ditudu.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK HISTORIA HITZALDIAK Ekainera bitartekoak Eusko Ikaskuntzarekin batera antolatu zituzten, baina irailetik aurrera entzungo ditugun historia hitzaldiak Udal Agiritegiak bakarrik antolatzen ditu. Guztiak Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldiak izaten dira, eta gehienetan Bergararekin lotutakoak. Argi dago herrian dagoen kultura eskaintza aberasten dutela. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

KIROLAK /11

KULTURA /12

Paulo Elkoro estraditatu

Bergara-Trintxerpe

Umeendako antzerkia

Eguaztenean estraditatu zuten Alemaniatic. Arratsaldean Madrilera eraman zuten hegazkinez.

Preferente mailako futbol taldeak Trintxerpe hartuko du zapatu arratsaldetan Agorrosinen.

Detraka taldeak *Zirkus Mirkus* lana egingo du bihar, zapatua, Munibe plazan 17:00etan.

ASTEKO DATUA

150

LAGUN BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAN

Herriko 150 bat korrikalarik hartuko dute parte domekan Behobia-Donostia lasterketan. Aurtengoa lasterketaren 39. ekitaldia izango da eta partaideek 20 kilometro egin beharko dituzte.

BESTEKEKESANA

“Calderonen gertatu zenaz ondorioak atara ditugu eta gauza ondo joan da. Orain beste jarrera batekin egin behar diegu aurre Juventusen eta Deportiboren aurkako partidei; azkenekoan bezala jokatzeko badugu, taldeak aurrera egingo du.

AGUSTIN ARANTZABAL /
Realeko kapitaina
‘El Diario Vasco’/03-11-03

“Torturak ez du existitzen eta terroristak dira salatzen dutenak. Zer gertatuko litzateke norbait ausartuko balitz ukatzera beste biolentzia adierazpide batzuetako biktimen sufrimendua? Existitzen ez duela esango balu?

IÑIGO ELKORO / Abokatu
‘Elkarri aldizkaria’/03-11-03

BERAIEK DIÑO / Mikel Elkoroberezibar



Guztiok gara beharrezkoak

Udazkenarekin batera eztabaida politikoa gori-gorian dago. Ibarretzek bere plana aurkeztu du, EAK berea, Ezker Abertzaleak hitz egiteko eskua luzatu du, Eztabaida Gune Nazionala sortu da, ELA eta LABek eurenak aurkeztu dituzte, PSOEren barruan mugimenduak ikusten ari gara, EBK ere berea aurkeztu du. Horrela bada, alderdi edo eragile bakoitzak bere proposamena aurkeztuko du gatazka honetatik nola irten gaitzeko zehazteko. Batzuk Gernikako estatutuarekin jarraitzen dute, beste batzuk federalismoa, besteak independentzia, eta zoritxarrez gaur egungo parametroetan azken ideia hori defendatzea ilegala da.

Ondo dago, eta ezinbestekoa da, sortzen ari den eztabaida, baina, gaur egun, ideia guztiak dira legitimoak independentzia eskatzen ez baduzu. Independentziaren alde lan egiteak teoriarik eta praktikan ilegalta-

suna eta kartzela dakar. Ondorioz plan eta iritzia guztiak ezin dira defendatu berdintasunean. Badakit zaila dela gaur egungo testuinguruan, ikusi besterik ez dago aste honetan gure inguruan ze gustura ibili diren militarrik, Madrilatik datorrenari men egitea. Baina

“Gure zoritxarreako, gaur egungo parametroetan independentzia defendatzea ilegala da”

benetako emaitzak lortzeko beharrezkoa da guztion partaidetza eta ezin dena da partidua hasi baino lehen inor joko eremutik kanpo laga. Hori tongoa da eta Euskal Herrian zerbait baldin badago jokalarionak dira, bai esku-

mako hegaletik aritzeko eta bai ezkeretik ere. Euskadiko selekzioak jokatzeko duenean edo Tourrean Pirinioetako malda gogorretan EHko zaleak bezalakorik ez dago eta oraingoan ere partida hori jokatu dutek, atzean, euskal zalegoaren berotasuna izatea beharrezkoa da jokalariek onena emateko eta jokoa ez despistatzeko. Izan ere jokalaririk eta zale guztion partaidetza ezinbestekoa da etorkizuna irabazteko.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 7**
ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- ZAPATUA, 8**
MOZOS. Iparragirre 2..... 943 76 12 15
- DOMEKA, 9**
MOZOS. Iparragirre 2..... 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 10**
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- MARTITZENA, 11**
ZABALA. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 12**
GUALLAR. San Antonio 5..... 943 76 11 05
- EGUENA, 13**
ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
Ertzaintza..... 943 76 53 40
Osasun etxea..... 943 76 24 40
Asepeyo..... 943 76 16 43
Pakea..... 943 76 13 49
Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
Odol emaitzak..... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06
- GARRIAK**
Taxiak..... 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
Igerilekuak..... 943 76 20 51
Kultura etxea..... 943 77 91 58
Liburutegia..... 943 77 91 62
Kiroldegia..... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
Epaitegia..... 943 76 14 92
Erregistroa..... 943 76 13 15
Jardun..... 943 76 36 61
Idolaz..... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara..... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
Postetxea..... 943 76 26 85
Bedelkar..... 943 76 04 68
Akulu AEK..... 943 76 05 18
Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
Bergarako notariatza..... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:15.
Zapatuak:
19:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elgeta
Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |

URTE-MEZAK

- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1930EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1930ean jaiotako enbarkaria azaroaren 9an Zumelagan. Aurretik, 12:30ean, meza San Pedron. Izenematea: 943 76 22 22 edo 943 76 26 23.

1939AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1939an jaiotako enbarkaria azaroaren 15ean Pertxa elkartean. Frontoian elkartuko dira 13:00etan. Izenematea 943 76 24 79 (Eulalia Elgarresta), 943 76 14 06 (Maria Jesus Urriategi), 943 76 13 30 (Rosario Garitano) edo 943 76 28 58 (Pello Garitano).

1951N JAIOTAKOEN AFARIA
1951ko enbarkaria azaroaren 15ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (0091 1080 94).

1946AN JAIOTAKOEN AFARIA
1946an jaiotako enbarkaria azaroaren 22an Tartufon. Izenematea: 943 76 35 51.

1981EKOEN BAZKARIA
1981ean jaiotako enbarkaria azaroaren 22an. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1300 9006 9776).

1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1934ko enbarkaria azaroaren 29an Torrekua jatetxean. Izenematea Torrekua jatetxean (aurrez 12 euro).

1944AN JAIOTAKOEN AFARIA
1944ko enbarkaria azaroaren 29an Azpeitxi jatetxean. Izenematea: 943 76 23 70 (Sanchez) edo 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano).

1957AN JAIOTAKOEN AFARIA
1957ko enbarkaria azaroaren 29an Zumelagan. Frontoian elkartuko dira, 21:00etan. Izenematea Intxorta tabernan (aurrez 10 euro).

1933AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1933ko enbarkaria azaroaren 30ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (aurrez 10 euro) Azpeitxin edo Intxorta tabernan.

URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorluzue aurrean), Matxiategi (Mizpildu okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olibarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Bergarako Kristau Elkar-teak Sierbak agurtu zituen

Bergaran 96 urtez egon ziren Mariaren Sierbei omenalditxo egin zieten 1993ko azaroaren 6an. Hain zuzen, Santa Marinaran izandako mezaren ostean, plaka bat eman zieten mojei Bergarako Kristau Elkar-tearen izenean, eta Santu Kristoaren irudi bana ere jaso zuten sierbek.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“kaskala”

1. Intxurrena, urrarena, gariarena eta beste fruitu batzuenak.
—Oso kaskal meia dauke arraultzok.
2. Kaskila, buruarina.
—Kaskal bat izan da beti eta oin be ala jarraitzen dau izaten.



HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 1 **1°C**

MAXIMOA
Astelehena, 3 **22°C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **38,2 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 29	14°C	9°C	24,3 l/m²
Eguena, 30	16°C	9°C	7,8 l/m²
Egubakoitza, 31	17°C	10°C	6,1 l/m²
Zapatua, 1	13°C	7°C	- l/m²
Domeka, 2	16°C	8°C	- l/m²
Astelehena, 3	22°C	7°C	- l/m²
Martitzena, 4	21°C	7°C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

‘DOS POLICIAS REBELDES 2’

ZUZENDARIA: MICHAEL BAY. AKTOAREK: WILL SMITH, MARTIN LAWRENCE.

HARIA. Mike Lowrey eta Marcus Burnett poliziek beste kasu bat argitu behar dute: diseinu-zoko drogen laborategi bat aurkitu behar dute Miamin. Jordi Molla ere azaltzen da Hollywoodeko superproduktzio honetan.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan eta 19:30ean; domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

‘LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS’

ZUZENDARIA: PATRICIA CARDOSO. AKTOAREK: AMERICA FERRERA, LUPE ONTIVEROS.

HARIA. Film honek ustekabeko arrakasta lortu du, kritikaren zein ikusleen harrera beroa jasota. Anak 18 urte ditu, ikasle ona da, lanean ahizpari laguntzen dio eta mutil bat ezagutu berri du...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan 22:30ean; domekan 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

FILM LABURREN EMANALDIA

Udazken Kulturalaren programazioaren barruan, film laburren emanaldia izango da datorren egunean, hilaren 13an. Film labur hauek eskainiko dituzte: *Belarra*, *Dortoka uhartea*, *Basurdea*, *Terminal*, *Lepokoa* eta *Topoka* (azken hau Asier Altuna Kizilena). Emanaldirako sarrerak 6 euro balio du, 4,5 euro 26 urtez azpikoendako.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, hilaren 13an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

TXAPA IRRATIA/ Dagoeneko egoitza berritik emititzen dute, gaztetxeko lehen solairutik, hain zuzen ere

Aste honetan eman du ezagutzera Txapa Irratiak denboraldiko programazioa

MONIKA BELASTEGI

Txapa Irratiak programazioa eman du ezagutzera astean barrena. FMko 97.25ean jarri du, ohi bezala, eta saio berri ugariarekin dator: denetariko 27 saio, hain zuzen ere. Bestelako berrikuntzak ere baditu irratiak; egoitza eta webgunea, esaterako.


Txapako leloak dioten bezala, *Uhinak astintzen* datoz beste denboraldi batez irrati libreko kideak. Aste honetan barrena eman dute ezagutzera programazioa, eta saio berri askorekin dator, gainera: 27, hain justu ere.

Denetariko irratsaioak dira: musika, berriak, elkarrizketak... Gehienak arratsaldeetan izango dira, eta egunero zuzeneko hiru eta lau saio egongo dira. Hala eta guztiz ere, Txapa Irratiak astelehenera domekara emititzen duela gogoratu behar da, 24 orduz, gainera. Hori horrela, iluntzeetan zuzenean egiten dituzten saio horiek eguneko barrena berriz entzuteko aukera dago.

Txapa Irrati Kolektiboa arduratzen da irratiak, eta hango kideak esan dutenez, hiru hilean behin irratsaio berriak egin nahiko dituzkete, besteak beste, freskoak emateko. Horren haritik, gehitu dute azkeneko urteetan gureakada izan dela saio kopurua. Dena den, batik bat jende gaztea hurreratzen dela azaldu dute, eta nagusitxoagoi ere gonaita egin nahi diete Txapa ezagutzera joateko eta nahi izanez gero irratsaioa egiteko. Hori horrela, zapaturo batzarra egiten dute 12:00etan, eta interesa duten gazteendako ateak irekita dituztela gehitu dute irrati kolektiboko kideek.

DAGOENEGO EGOITZA BERRITIK EMITITZEN

San Martin jaien ondoren estreinatzen duen egoitza berria Txapa Irratiak. Zabalotegiko dorrean zuzenean laga, eta gaztetxeko lehen solairura joan dira.



ARTXIBOA

Zabalotegiko egoitzan 1989. urtetik egon da Txapa irrati, baina San Martín jaien ostetik egoitza berria dute gaztetxeko lehen solairuan.

Datorren urtean 20 urte egingo ditu irratiak, eta sortu zenetik hiru egoitza izan ditu: lehena, herriko sindikatu batek lagatako lokala izan zen; bigarrena, Udalak lagatako Zabalotegiko lokala,

eta hirugarrena, gaztetxean estreinatuta berri dutena.

WEBGUNEA

Webgunea ere egin eta estreinatuta dute Txapa Irratikoek.

www.txapairratia.tk helbidean Txapa Irratiaren gaineko historia, argazkiak, programazioa, kontaktua, eta beste hainbat gauza aurki daitezke. Arduradunek webgune dinamikoa izatea nahi dute,

eta oraindik guztiz bukatuta ez dagoen arren, foroa ere jarriko dute webgunean. Bestalde, aurrera begirako asmoen artean, irratsaioak Internet bidez emateko aukera aztertzen dihardute.


Txapa Irratiaren programazioa						
ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	EGUBAKOITZA	ZAPATUA	DOMEKA
19:30-21:00 Arreu	19:30-20:30 Otxokoren kurruskitua	15:30-16:30 Nijarta	20:00-21:00 cameon babyes lets...	17:00-18:00 Ber benir	15:00-16:00 Marshal&Freedom	16:30-18:00 Jai alai
22:00-23:00 Ez dok habitual	22:00-23:00 Ikusi eta ikasi	21:00-22:00 Altzaporru	21:00-22:00 Born to lose	20:00-21:00 P.O.H.S.	16:00-17:00 Flashback	20:00-21:00 Uneak
23:00-24:00 Itxi atia barrutik	23:00-24:00 We want the airwaves	22:00-23:00 Ametsetako lurra/Dabilen harria	22:00-24:00 Mundura begira	21:00-22:00 Edertasunaren nostalgia	17:00-18:00 Fronline	21:00-22:00 Igo bolumena
		23:00-24:00 R&R Danmation		22:00-23:00 Comida china y subfusiles	18:00-20:00 Jailhouse rock	22:00-23:00 On the road again

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaingitu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A



Bergara eta Soraluze artean dagoen Gallastegiko tunela EAE-ko luzeena da; 2.370 metro ditu.

AUTOBIDEA/ Eibar eta Ondartza baserri arteko zatia abenduan zabalduko dute

Zaldumendiko ordainlekua egiteko lanak lehiaketara

MONIKA BELASTEGI

A-1 autobidearen lanen barruan, Zaldumendiko ordainlekua egiteko lanak lehiaketara ateratu dituzte. Autobidearen bigarren tarteari dagozkio lanak. Lehen tartea, Eibar eta Ondartza baserriaren artekoa abenduan zabalduko dute.

Hainbat atzerapenen ondoren urrian zabaltekoak ziren arren, berriz atzeratu dute Eibartik Ondartza baserriraino doan errepide zatiaren irekiera. Halaxe esan dute Foru Aldundiko itu-

rriek eta gehitu dutenez, abenduan zabalduko dute. Lanik handienak bukatuta daudela gehitu dute, eta azkeneko ukituak berterik ez direla falta; hala ere, ez dute zehaztu hilabete hasiera edo bukaera aldera zabalduko duten.

Atzerapenen arrazoia da Larreategiko eskumako zubibidean, Soraluzean, urtarrean gertatutako istripua. Hiru pieza handi erori ziren eta zubibidetik zintzilik geratu ziren. Konponbideari dagokionez, istripuak ezkerreko zubibidean izandako eragina aztertzen jardun dute eta badaezpada sendotu egin dute. Istripua jasan zuen eskumakoa berre-

giteko lanek luzera joko dute. Bien bitartean, ezkerrekoa berriz zabalduko dute, eta bi norabidetakoa izango da.

EAE-KO TUNEL LUZEENA

Eibar eta Ondartza-baserri arteko tartea 7,6 kilometro ditu, eta EAE-ko tunelik luzeena hortxe dago: Gallastegikoa, hain justu, 2.370 metroekin.

Ondartza-baserria eta Zaldumendi arteko zatia, berriz, 2004ko udan zabalteko espero dute. Tarte horrek 5,5 kilometro ditu, eta eraikin ikusgarrienetako Ipiñarriko zubibidea da: 40 metroko altuera du eta 640ko luzera.



UNEDek ireki du ikasturte berria

Aurreko egubakoitzean ireki zuten Bergarako UNED zentroak 2003-2004 ikasturtea. irekiera-hitzaldia Realeko presidente Jose Luis Astiazaranek egin zuen eta *Sentipen baten profesionalizazioa* gaia izan zuen hizpide. Harekin batera, Diputatu nagusi Joxe Juan González de Txabarri; Juanjo Alvarez, Bergarako UNEDeko zuzendaria eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren. Horrez gain, 2002-03 ikasturtean ikasketak bukatu zituzten ikasleei diploma banatu zitzaizkien.

Osoko bilkuraren gainean hainbat ohar egin ditu BAK

M.B.

Azkeneko ohiko osoko bilkuran hainbat galdera egin zituzten Bergara Aurrerako kideek udalbatzari. Erredakziora bidalitako oharrean, galdera horiek azaldu dituzte, besteak beste.

Erredakziora bidalitako oharrean, aurreko asteko ohiko osoko bilkuran izandako interbentzioaren berri eman du BAK. Batik bat, dauden egoera eta baldintzak kaskarrak izan arren, euren konpromisoari eutsi eta Udalean lanean dihardutela diote.

Baldintza eskas horren adibide gisa, bilkurako gai zerrenda "udaletxeko arkupeetan" jaso zutela azaldu dute, eta ondorioz, zerrendako hainbat gairen gainean ezin izan zutela iritzirik eman, informazio gutxi zutelako. Horren harira, hain justu, egin zuen galdera Jesus Mari Garitanok: nola bermatuko den BAREN partehartzea udaletxean. Horrekin batera esan zuen egoera konpontzeko proposamen bat ere luzatu dietela hainbat alderdiri eta oraindik EAJ-EAREN erantzun-

naren zain daudela. Victoriano Gallastegi alkateak esan zien, astearen barruan erantzun zuzena zela.

LANGILEEN ERABAKIAK

Beste bi gai ere planteatu zituzten: batetik, esan zuten udaletxeko langileen erabakiak ez direla aintzakotzat hartzen, eta gehitu zuten langileen batzordeak hartutako bi erabaki oraindik mahai gainean dituela Gobernu batzordeak: batetik, Euskaldu-non Egunkaria itxi zutela salatzeko egindako lan uztearen dirua hedabide horri ematea. Bestetik, 2003-04ko lan egutegian Estatuan inposatzen dituen jai egunak ez ospatzea eta lana egitea. Alkateak esan zuen, langileen batzordeari jakinaraziko zaiola Gobernu batzordearen erabakia.

Azkenik, Txosna batzordeari San Martinetan txosna jartzeagatik ipinitako isuna kentzeko eskatu zuten BAKoek. Alkateak esan zuen zigor espeditentia ireki zitzaiela txosna jartzeko baimenik ez zutelako. Bestalde, isunaren kopurua zehaztu gabe dagoela azaldu zuen eta Gobernu batzordeak ez zuela, oraindik erabakirik hartu.

Eguaztenean estraditatu zuten Paulo Elkorro Alemaniatic

M.B.

Eguaztenean bete zuten estradizio agindua eta arratsaldean Alemaniatic Madrilera eraman zuten hegazkinez, Barajas-eko aireportura. Urtarrietik Municheko espetxean zegoen.

Aurreko astean jakin zuen Paulo Elkorok Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak estradizioa berretsi zuela. Astelehenean bisitan izan zituen familiakoak, eta azaldu zuten, "nahigabe handiz" hartu zuten Paulok erabakia; izan ere, "erabakia beste bat izango zen itzaropena zeukan".

Irailaren 4a ezkerreko zegoen Elkorro erabakiaren zain: urtarilaren 21ean atxilotu zuten Nurenberg hirian. Handik gutxira bi estradizio eskaera egin zituzten Espainiako Estatuak, eta nahiz eta Elkorok helegitea aurkeztu Nurenbergeko epaitegian,

honek onartu egin zituen eskaerok. Hori horrela, Auzitegi Konstituzionalera jo eta beste helegite bat aurkeztu zuen irailaren 4an.

Bitarte horretan hilabete gose greba ere egin zuen, batik bat, Alemaniako Estatuaren inplikazioa salatzeko eta Alemaniaren libre bizi ahal izateko eskubidea aldarrikatzeko. Izan ere, Espainiako agintariak egindako estradizio eskaerak ez dute oinarrikerik Elkororen esanetan: eskaerok egiteko aurkeztu zituzten frogak komisarian atxilotu batek torturapean eginiko deklarazioan oinarritzen zirelako.

ETXETIK AHALIK ETA GERTUEN

Familiakoek azaldu zuten, erabakia jakin aurretik eskaera bat egin zuten Elkororen abokatuak Konstituzionalen: estraditatzeko, etxetik gertuen dagoen espetxe batera eramateko baldintza jartzea Espainiako agintariari.

LABUR

Perretxikoen gaineko hitzaldia izango da gaur, egubakoitza, Pertia elkartean

Pertia elkartek perretxikoen gaineko hitzaldia antolatu du. Gaur, egubakoitza, izango da, 20:00etan. Hizlaria Javier Elorza izango da eta landuko duen gaia *Perretxiko jangarriak eta ez egozkiak* da. Hitzaldia elkartean izango da, eta sarrera dohainekoa da.

Ekitaldi ugari asteburuan Nahikari tabernaren 18. urteurrenean

MONIKA BELASTEGI

Nahikari tabernak 18 urte beteko ditu asteburuan. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte astebururako. Horrekin batera, webgunea estreinatu dute Nahikari tabernakoek.

Nahikari taberna 1985eko azaroaren 8an zabaldu zuten, Bittor Pozak, nagusiak, azaldu duenez. Asteburuan, beraz, 18 urte bete-ko dira taberna ireki zutela. Hori horrela, eta urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte astebururako: bihar, zapatua, Fakundo taldearen komedia musikala egongo da, 24:00etan. Eta horren ondoren, musika eta operariak izango dira hurbiltzen direnendako.

Domekan, berriaz, gaztaina jana egongo da 19:30ean, Josu eta Jokin trikitalariek alaituta.

HAINBAT URTEZ ERAKUSKETA-GUNE

Taberna zabaldu eta handik bi urterera erakusketak antolatzen hasi ziren Nahikari tabernan. Pozak azaldu duenez, garai hartan herriko hainbat margolariren hitokia zen Nahikari eta hala sortu zen erakusketak antolatzeko ideia. Hura hastapena izan zen, eta ordutik hona, urtero-urtero hamarren bat erakusketa izaten dira: herriko artistena zein kanpokoena. Pozak esan duenez, erakusketak egiteko erraztasun handirik ez dutenei aukera bat emateko modua da.

Horren haritik, gaur, egubaitza, Eburne Erañaren ikasle-



ARTXIBOA

Urtean hamarren bat erakusketa egiten dituzte Nahikari tabernan.

ek erakusketa irekiko dute Nahikari tabernan. Erañaren hamai-ka ikaslek, hain justu ere: Iraiz Zaleki, Daniel Miner, Miren Fernandez, Alaitz Errasti, Jon Arrillaga, Mikel Olea, Asier Kortabarria, Jon Garcia, Ane Ruiz de Egin, Jon Belastegi eta Aitor Astorkiak. Hamabosten bat lan

jarriko dituzte: marrazki artistikoak, olioak, akuarelak eta lumatoak, hain zuzen ere.

DENBOREKIN BAT EGINEZ, WEBGUNEA MARTXAN


Horrez gain, beste berrikuntzarik ere badu Nahikari: hilabete hasiera ezker Interneten aurki dezakegu, www.nahikari.com helbidean, hain justu ere. Pozak azaldu duenez, Iñaki Ibbek egin du tabernaren web orria. Webgune horretan, besteak beste, unean uneko erakusketen berri emango dute, aurrez egon diren erakusketen berri, baita herrikoak izanda beste herri batzuetan erakusketak dituzten artisten berri ere.

Musika, imitazio ikuskizuna eta operariak egongo dira bihar, zapatua, eta etzi, domeka

LABUR

Azken egunak Jardunek antolatutako Sendabelar ikastaroan izena emateko

Azaroaren 10ean, 17an, 24an eta abenduaren 1ean izango da, 19:30etik 21:30era bitartean, Arrizuri jauregian. Besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: desodorante naturala eta fruta likorearen prestaketa, bizkarrarendako ukenduaren prestaketa eta bainurako gatzak eta kolonia uraren prestaketa. Izena Jardunen bulegoan eman daiteke, edo kultura jardun@topagunea.com helbidera idatzi edo telefono zenbaki hauetara deitu: 943 76 08 19 eta 943 76 36 61. Prezioa 20 euro da bazkideendako eta 25 gainerakoendako.



Errotaldeko plazatxo berria gertu dago

Errotalde parkean eraikitzen jardun duten plazatxo eta sarre-berria bukatu dituzte dagoeneko. Lanak guztiz bukatzeko gauza bat baino ez da falta, eskaileretako hezia jartzea, hain justu ere. Hezi hori laster jarriko dutela esan dute Udal iturriek. Hori jartzen dutenean erabiltzeko moduan geratuko dira plaza eta sarrera.

943 76 20 61
BERGARA

GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

MIZPILDI

OKINDEGIA

Mabiategi 1, 943 76 72 73. Mizpildi 8, 943 76 12 32. BERGARA

gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

GISASOLA
"Erratzu"
BURDINAKI DENDA

eta orain Gorja giltzak aukeran...

San Pedro 8 Tel.: 943 76 27 70 BERGARA




POL-POLEKO BETERANOAK ARABAN

Pol-Pol Mendizale Taldeko beteteranoek Arabako mendietara irteera egin zuten urriaren 26an. Izki Natur Parkera joan ziren eta Antoñana eta Durruma Kanpezu herrien artean lau bat orduko ibilaldia egin zuten; tartean; Soila mendi gainera (990 m) iritsi ziren. Eguraldi lainotsua izan zuten arren, paisaiatz gozatzeko aukera izan zuten. Argazkian haitzulo baten dagoen San Roman ermitan ikusten dituzue mendizale bergararrak. Datorren domekan, azaroaren 16an, Karrantzara egun osoko irteera egingo dute, denboraldia amaitzeko.




DROGERIA BERRIA BIDEKURUTZETAN

Bidekurutzeta kalean Schlecker izeneko drogeria zabalduko dute laster. Kate aleman bat da Schlecker eta Bergarako Debagoienean zabaltzen duten lehenbiziko denda izango da. Inguruan, Urretxun, Zumarragan eta Elgoibarren badira firma horretako drogeriak. Bergarako dendako arduraduna Mari Karmen Etxeberria izango da.



ONDDO IKUSGARRIA

Antonio Alferezek argazkian ikusten duzuen onddo ikusgarria batu zuen urriaren 29an. Hiru buruko onddoa zen eta bi kilo pisatzen zuela esan zigun Antoniok. Perretxiko-zaleek ez dute nahi izaten euren piezak non aurkitzen dituzten esatea eta Antoniok zera esan zigun bakarrik, Gorla inguruan jaso zuela. Aurreko urtean lau kiloko beste pieza bat jaso zuen. Etxean afari ederra egingo zuten egunotan...



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

18. URTEURRENA OSPATZEKO NAHIKARI TABERNAN

Azaroak 8 zapatua

24:00etan:

Komedia musikalá

Jarraian festa eta opariak

Azaroak 9 domeka

19:30ean:

Gaztaina jana Josu eta

Jokin trikitalariek.

informazio gehiago: www.nahikari.com

Masterreka 20. Bergara. Tel. 943 76 57 71

KANPOTARRAK BERGARAN

NANI TAMAYO

40 URTE / KUBATARRA / ORAIN DELA BI URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Hasieran kosta egin zitzaidan hemengo bizimodura ohitzea, baina orain gustura nabil”

EDU MENDIBIL

Kubatarra izanik, hasieran hemengo bizimodura ohitzea izugarri kostatu zitzaiola diosku Nanik: “Eguraldiaz gain, kubatarrekin konparatuz hemengo jendea nahiko hotza iruditzen zitzaidan, eta lehenbiziko hila-beteetan Kubara bueltatzeko ideia neukan buruan. Poliki-poliki moldatzen joan naiz eta orain gustura nago Bergaran”. Orain dela bi urte etorri zen Nani, Kuban euskaldun batekin ezkondu eta gero. Bere gizona, Ismael, Portugaletekoa da eta hainbat urte daramatza Bergaran lanean.

Familia Kuban lagatzea gogorra egin zitzaion Naniri. Ama, anai-arrebak eta Elio semea han bizi dira. Hala ere, bere ahizpetako bat, Susel, Gasteizen bizi da orain dela lau urtetik: “Aste bukaera gehienetan Suselengana joaten gara edo hura etortzen da Bergarara. Baina bai, semea eta gainerako familia hain urrun edukitzea ez da batere atsegina”.

Esan bezala, klimarekin eta hemengo bestelako ohiturekin pixka bat sufritu zuen Nanik hasieran: “Kuban kalera irten eta edonorekin has zaitezke berbetan eta hemengo jendeak, berriz, badirudi ez daukala ezertarako denborarik, nahiko estresatuta bizi da. Pentsa, nik ere orain arte ez dut sekula sorbaldetan minik izan eta uste dut estresagatik kargatuta dauzkadala... Kubako jendea askoz ere lasaiago bizi da. Hala ere, hango egoera ez da batere ona. Blokeoak eraginda, gabezia asko ditugu, baina ez da oinarritzko ezer falta. Ez dago miseriarik eta inor ez da gosez hiltzen Kuban. Osasun eta hezkuntza sistemek oso ondo funtzionatzen dute han”.

Hain zuzen ere, osasun publikoan lan egiten zuen Nanik Bergarara etorri aurretik. Mediku estomatologoa da, eta hamar bat urte eman ditu Holguin probintzian lanean, Buenaventura herrian. Nani La Habanakoa da

“Jendea nahiko estresatuta bizi da hemen, badirudi ez daukala ezertarako denborarik”

eta Holguin Kubako hiriburutik 700 bat kilometrora dago.

Bergaran, berriz, umezain lanetan dabil Nani. Kuban egindako ikasketak eta lortutako titulua homologatzeko tramite asko egin eta diru dezente ordaindu beharra dagoela dio.

Aste bukaeretan eta inguruko herriak bisitatzea gustuko du Nanik: “Senarrarekin eta lagunekin mendira joaten gara sarritan. Kuban ez dago horrelako planik egiteko aukerarik... Bestalde, zera sumatzen dut faltan: hemengo jendeari tabernaz taberna ibiltzea gustatzen zaio eta Kuban, berriz, lagunenetxeetan elkar-tu eta han zerbait hartu

eta dantzan egiteko ohitura daukagu. Aurrez deitu barik, lagunengana joaten gara han. Eta laguna etxean ez baldin badago, berdin dio. Etxera bueltatzen gara eta kito. Bidean beti daukazu norekin elkartu eta hitz egin”.

Gaur bertan Kubara joango da Nani, bi hilabete pasatzera. Bere herrialdera bueltatzeko irrikaz dago, familiarekin eta lagunekin elkartzeko: “Ez daukat inolako arazorik Kubara sartu eta handik irteteko, eta ahal dugunean ahalegintzen gara joaten. Aste Santuan egon ginen azken aldiz han. Senarrari ere izugarri gustatzen zaio Kuba, maiteminduta dago hango kultura eta jendearekin”.

Etorkizunean ez dute baztertzen Kubara bueltatzea, baina oraingoz gure artean gustura dagoela esan digu Nanik. Euskaltegian ere hasi da euskara ikasten. Euskaraz egiten hasi eta hanka-sartzeak egiteko beldur dela diosku. Edozelan ere, hurrengo elkarriketan euskaraz mintzatuko zaigula agindu digu. Ikasle fina ei da Nani.



BERRIGARA Egunkaria / 2003ko azaroaren 7a

MINGAINARITIRAKA



Monika Fernandez

BOLINTXO KIROL DENDAKOA

Zientzia Politikoko ikasketak egin zituen Monikak Leioan, eta bi urte eta erdi daramatza Bolintxo kirol denda lanean. Aurretik beste hainbat komertziotan egin du lan. Cancer zeinukoa da eta horoskopoa irakurtzeko ohitura dauka.

- Emakume ala gizonezko gehiago etortzen da dendara? Emakumeak beharbada...
- Dendari izateko beharrezko dohaina? Pazientzia handia izatea eta jendea tratatzen jakitea.
- Zu zeu kirolzalea zara? Gustuko kirol bat? Egia esan, ez dut kirolik egiten, denbora faltagatik batez ere. IKus-teko futbola eta gimnasia erritmikoa gustatzen zaizkit.
- Urtaro gogokoena? Uda, eguraldiagatik eta denbora libre luzeagoa izaten dudalako.
- Jantzi bat? Kolore bat? Prakak; kolorea, beltza.
- Txikitan zer izan nahi zenuen? Postari edo meteorologo.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu? Lagunekin irtetea, irakurtzea, zinemara joatea...
- Mendizalea zara? Inguruko mendi bat? Gustatzen zait baina nahi baino gutxiago joaten naiz. Udalatx.
- Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat? La caverna (Saramago)/El sexto sentido/Tracey Chapman.
- Emakumezko eta gizonezko aktore bana? Emma Thompson eta Jack Nicholson.
- Telebistako programa bat? Lehiaketak gustuko ditut: Date el bote, Pasapalabra...
- Gustuko janari eta edari bana? Arrain zopa eta ura.
- Euskal Herriko toki bat? Bizkaiko kostaldea, Mundaka ingurua.
- Egunkarian zein albiste irakurri nahi zenuke? Irakeko egoerak hobera egiten duela.
- Besteengan gehien estimatzen duzuna? Egiazalea eta maitekorra izatea.
- Loterian milioi bat euro irabaziko bazenu? Etxe bat erosi eta bidaiatu egingo nuke.
- Eta nora egingo zenuke bidaiaria bat? Argentinara.

EDU MENDIBIL

laster informazioa "klik" batean

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda •

ELKARRIZKETA

JOKIN ETXANIZ/ASPE PILOTA ENPRESAKO ZUZENDARI TEKNIKOA

"Profesionala izaten saiatu behar du Mikel Goñik; etorkizuna bere eskuetan dago"

EDU MENDIBIL

Jokin Etxaniz (33 urte) Aspeko zuzendari tekniko da joan zen urtea ezker. Orain arte nagusiki pilotari gazteekin lanean izan bada ere, Aspe Mikel Goñiren prestaketaz arduratzeko agindu dio Jokini.

Ez duzue lan erraza izango Mikel Goñirekin...

Ikusi behar. Fernando Vidarte gerentearen erabakia izan da eta Javi Perez prestatzaile fisikoari eta bioi agindu digu Mike-len entrenamenduz arduratzea. Hainbat pilotarik euren prestatzaile fisiko propioa daukate, baina Mikel bere kontura zebilen aspaldian, eta egoera horrekin amaitu nahi izan du Vidartek. Mikelek ez du oso itxura onik eman aspaldian eta enpresan nahiko haserre zeuden bere jarrearekin. Enpresak beste aukera bat eman nahi izan dio. Ea guztion artean egoera bere onera bideratzen dugun.

Goi mailan ikusiko dugu berriz Mikel Goñi?

Hori bere esku dago. Denok dakigu Mikelek zer-nolako gaitasunak dituen eta kantxan zer emateko gauza den. Nahiz eta askotan behar den moduan ez egon, goi mailan jokatzeko ahal-

mena duela erakutsi du, pilota barruan daraman horietakoa delako. Maiztasunez jokatu izan duenean ondo ibili izan da, baina profesionala izaten saiatu behar du. Gu ez gara inoren salbatzaileak, berak ez badu nahi punta-puntakoen mailan egon, alferrikako lana egingo genuke. Horregatik diot etorkizuna bere eskuetan duela.

Asko hitz egiten da soberan dituen kiloek gainean.

Fisikoki ez dago ondo eta lehenbizi ahalik eta baldintza onenetan egotea nahi dugu. Ezin dizut esan zenbat kilo dituen soberan. Indartsua eta zabala da, eta logikoa da pisutsua izatea. Hala ere, kantxan fin ikustea da gure helburua. Lan fisikoa eta frontoiko entrenamenduak egingo ditugu. Aspeko beste edozein pilotariri moduan, bitarteko guztiak jarriko dizkiogu sasoi puntu onena lor dezan.

"Goñik ez badu nahi puntakoen mailan egon, alferrikako lana egingo genuke entrenatzaileok"

Bestalde, nola ikusten duzu lau t'erdiko txapelketa?

Orain arte ikusitakoaren arabera Titin III.a da nire favoritoa. Oso ondo ikusten dut. Defenditzen onena da eta eraso egiteko orduan ez dut ezer berririk esango, aparta da Titin. Oso motibatuta eta zentratuta ikusten dut. Unanueri hain erraz irabazteak ere moral handia emango zion... Aimar ez egotean, Titin da txapela eskuratzeko favoritoa. Hala ere, ezustekoak izango dira oraindik. Begira Capellanez zela irabazi zion Barriolari, Belokik Eugiri ere bai... Emozioa izango da.

Gero eta gutxiago ikusten zaitugu kantxan...

Udan nahiko jokatu nuen baina gero eta gutxiago jokutzen dut. Sasoi honetan jaialdi gutxiago dago... Enpresari nirekin kontaktzeko esan diot, nire burua ondo ikusten dudalako. 33 urte daukat baina kantxan ondo nabilen bitartean jokatzeko jarraitu nahi nuke. Hain gazte pilotari izateari lagatzea pena emango lidake. Edozelan ere, pilotan lanean jarraitzeko zortea daukat eta horrek pena txiki hori arintzen du. Dena den, jokatzeko jarraitzea da nire asmoa. Kontua da zuzendari tekniko karguan nabilenetik denbora laburragoa dudala entrenatzeko-eta.



ARTXIBOA

Bergarako 150 bat korrikalarik hartuko dute parte domekan Behobia-Donostian

E.M.

Bergarako 150 korrikalari inguruk hartuko dute parte domekan Behobia-Donostia lasterketan. Azken urteotan ohikoa denez, herriko atleta ugari izango dira Behobiako irteeran. Joan zen urteko edizioan Bergarako 113 korrikalarik amaitu zuten proba. Marka onena Jon Arantzabal Ezpeletak egin zuen, ordubete, 11 minutu eta 30 segundoko denborarekin. Saillkapen orokorrean 92. postuan geratu zen Arantzabal. Herriko korrikalarien kasuan gizonezkoak nagusi izan ziren joan zen urteko ekitaldian. Mari Karmen Isasti Agirre izan zen proba amaitu zuen bergarar bakarra, 1:50:09 denborarekin, 7.089. postuan saillkatuta. Bestalde, Iratxe Aranburu zarautzitarra, Udaleko kirol zuzendari berria, probako lehen emakumea izan zen, 1:15:38 denbora eginda.

Iazko ekitaldian parte hartu zuten askok eta askok errepikatuko dute domekako lasterketan ziurrenik. Udatik hona korrikalari pilo batek dihardu lasterketa gertatzen.

Joan zen urriaren 25ean 60 bat lagunek hartu zuten parte Behobia Txiki herri lasterketan. Proba horretan asko izaten dira Behobia-Donostiarako indarrak neuritzen dituztenak.

11.000 PARTAIDE

Dagoeneko 11.000 lagunek eman dute izena domekan Behobia-Donostian parte hartzeko. Aurtengoa Fortuna Kirol Elkarteak antolatzen duen lasterketaren 39. ekitaldia izango da. Korrikalari txiparekin korrituko dute, helmugan zein denbora egiten duten zehatz jakiteko. Datorren astean debagoiendarren saillkapena ikusi ahal izango duzue GOIENKARIAko orrialdeetan.



ARTXIBOA

Aurten ere partaidetza handia izango da Behobia-Donostia lasterketan.

TXIRRINDULARITZA

Txirrindulari Elkarteak afaria datorren zapatuan

Bergarako Txirrindulari Elkarteak denboraldi amaierako afaria egingo du azaroaren 15ean Zuloan. Afal aurretik batzarra izango da. Izene-matea San Martin plazako bulegoan, gutun-azal baten izena jarrita.

MENDIA

Material bilketa Pol-Poleko azoka txikirako

Pol-Pol Mendizale Taldeak urtero antolatzen duen azoka txikirako material bilketa egingo dute azaroaren 10etik 20ra bitartean, 19:00etatik 20:30era. Bigarren eskuko materialaren azoka, berriz, azaroaren 24tik 29ra egongo da zabalik. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian.

FUTBOLA

Bergarak Trintxerpe hartuko du bihar Agorrosinen, 15:30ean

Mahoneroek ligako bigarren partidua galdu zuten zapatuan Lesakan, 4-1

Preferente mailako BKEko futbol taldeak Trintxerperen aurka jokatu du bihar, zapatua, Agorrosinen, 15:30ean. Aurreko astean Beti Gazteren aurka 4-1 galdu ondoren, bergarrek hiru puntuak eskuratu nahi dituzte gaitaldean segitzeko.

Juanina Garai Bergarako taldearen entrenatzailearen arabera, taldeak oso partidu eskasa jokatu zuen zapatuan Lesakan Beti Gazteren aurka: "Taktikoki ordenarik jokatu genuen eta ez zitzaizkion ezer ondo irten partidu osoan. Merezimendu osoz galdu genuen. Espero dut horrelako beste partidurik ez egitea". Nafarroak 4-0 aurreratu ziren markagailuan zapatuan eta Josu Zubizarainak egin zuen bergararren gol bakarra.

Sailkapenean gauzak oso estu daude. Lehen zortzi taldeak hiru puntuak tartean daude. Bergarak garrantzi handiko hiru partidu jokatu ditu hurrengo asteotan: bihar Trintxerpe hartu ondoren, hurrengo astean Elgoibar lideari bisita egingo dio eta hamaikosten egun barru Anaitasuna izango da bisitari Agorrosinen.

Biharko partidurako Gorka San Vicente, Oier Loiola, Andoni Arrieta, Aritz Agirre eta Oskar Maiztegi taldera itzuliko dira. Juanina Garaik esandakoaren arabera, Trintxerpe esperientzia



OLAIJA MONDRAGON

Juanina Garai entrenatzailea Hernaniren aurkako partiduan aginduak ematen.

handiko taldea da eta zaila izango da partidua aurrera ateratzea. Hala ere, mahoneroen entrenatzailea baikor da eta hiru puntuak etxean geratuko direla uste du.

BESTE HIRU PARTIDU ASTEBURUAN
Futbol 8ko nesken taldeak Ipintzan jokatu du bihar Antzuo-

laren aurka, 17:30ean. Etzi, domeka, berriz, beste bi partidu izango dira Ipintzako futbol zelaian: bigarren kadete mailako taldeak Aretxabaleta hartuko du 10:00etan, eta ondoren, 11:30ean, lehen gazte mailan, Bergara eta Urola izango dira aurre.

Gipuzkoako Txapelketako partiduak gaur pilotalekuan

E.M.

Gipuzkoako Txapelketako bi partidu jokatu dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Lehen kadete eta lehen senior mailako bikoteak Aurrera Saias taldekoen aurka arituko dira.

Aurreko astean jokatuak sei partiduetan bitan bakarrik irabazle izan genituen bergarar pilotariak: lehen senior mailako bikoteak, Edu Samaniegok eta Igor Gutierrezek osatutakoak, Azpeitian irabazi zuten, 9-22. Bigarren senior mailan, Julen Aranburuk eta Beñat Inarrak Elgoibarko bikoteari irabazi zioten, 22-21.

Esan bezala, gainerako neurketetan galtzaile izan ziren BKEko pilotariak: Eneko Muguruza-Xabi Azurmendi gazte mailako

bikoteak Aurrera Saiasen aurka galdu zuten (8-22), Ander Gabilondok banakako partidua galdu zuen lehen senior mailan Arrasateko ordezkariaren aurka (1-22) eta Markel Aldai-Aritz Untzueta eta Aitor Osa-Oier Aldai kadete mailako bikoteek ere galdu egin zuten, Astigarragan (22-9) eta Antiguon (22-8) hurrenez hurren.

Gipuzkoako klubuen arteko txapelketako finalak abenduan jokatu dira. BKEko pilotariak dagokienez, lehen senior mailako bikotea da final erdietara sailkatzeko aukera duen bakarra.

Bestalde, infantil mailako pilotariak ere Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko hasi dira. Jon Perez, Inaki Igartua, Aritz Rezusta eta Gorka Irizar dira BKEko ordezkariak. Lehen partiduan Antzuolari irabazi zioten Igarituak eta Rezustak, 18-9.



ARTIBOBA

Bergara KEko pilotariak ez zuten emaitza onik lortu aurreko astean.

SASKIBALOA

Kadete mailako nesken taldeak San Tomas Lizeoaren aurka jokatu du zapatuan

Kadete mailako nesken saskibaloitza taldeak Santo Tomas Lizeoaren aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 12:00etan. Bergarrek Ordizian irabazi zuten zapatuan, 40-49. Kadete mailako Araneta mutilen taldeak Gros Xakeri irabazi zion, 41-27.

Eskubaloitari dagokionez, asteburuan ez da partidurik izango kiroldegian. Gazte mailako mutilek Ereintzaren aurka berdindu zuten zapatuan (25-25) eta senior mailako mutilen taldeak El Pilarri irabazi zion domekan (34-12).

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

- 16:00: Irubide-Agirrebeña. **Dedo Pafarru**
- 17:00: Dedo Pafarru-Cosa Nostra. **Santana**
- 18:00: Santana-Belengua. **Torpedo Musak**
- 19:00: Torpedo-TMT. **Egurre**
- 20:00: Egurre-Artusamak. **TMT**

DOMEKAN, KANPOAN

- 09:30: Etengabe-Mongatxurak. **Kalaveras**
- 10:30: A Ze Flaxa-Kalaveras. **Etengabe**
- 11:30: Canalejas-Teatekh. **Argandolas**
- 12:30: Argandolas-Torrekua. **Teatekh**
- 16:00: SDTNT-PDS. **Errotagain**
- 17:00: K. Piperrak-Errotagain. **De resaka**
- 18:00: De resaka-Fit automo. **K. Piperrak**

FOTOKIROLA



Rakel Blancok eta Markel Larrañagak gerriko beltza eskuratu dute

Bergarako Shotokan karate taldeko Rakel Blancok eta Markel Larrañagak gerriko beltza (lehen-biziko dan delakoa) eskuratzeko probak gaingitu dituzte. Urte osoan gogor entrenatu ondoren, bost epaileren aurrean erakutsi behar izan zuten lortutako maila, katak eta kumiteak eginda. Biek ere 16 urte dituzte eta Shotokan taldean dabilta Josean Inarra entrenatzailearen aginduetara.



Tamaina handiko panpinekin zirkuaren mundua ekarriko dute herrira Detraka taldeko kideek.

'Zirkus Mirkus' kale ikuskizuna egingo du Munibe plazan, 17:00etan

Umeendako antzerkia bihar Muniben, Detrakaren eskutik

MONIKA BELASTEGI

Detraka antzerki taldeak *Zirkus Mirkus* kale ikuskizuna egingo du bihar, zapatua, Munibe plazan, 17:00etan. Dena den, euria eginez gero, Udal Pilotalekuan izango da emanaldia. Panpin erraldoiez baliatuz zirkoaren mundua ekarriko dute herrira.

Detraka kale animazio taldea Bilbon sortu zuten 1997an. Haur animazio, musika eta aisialdi taldeetan jardundako pertsonak osatzen dute. Umorerik ez zaio falta taldeari eta emanaldi bakoitzean umeen erreakzioa eta partehar-

tzea bilatzen eta bultzatzen dute.

Zirkus Mirkus ikuskizunean zirkuaren mundura egiten du jauzi taldeak. Zirku horretan denetarik dago: piztiak, pailazozak, magoak... Pertsonaiok, gainera, tamaina handiko panpinak dira, eta umeen laguntzarekin hainbat zirku saio egingo dute.

GAUR, ANTZERKIA ZABALOTEGIN

Italiako Fabbrica del Vento antzerki taldeak *Sgórbypark* antzezlana egingo du gaur Zabaloategin, 22:30ean. Taldea 1997an sortu zen Brescian, eta aurrez beste antzerki talde batzuetan jardundako kideek osatu zuten. Orduz gero hainbat lan prestatu

dituzte eta *Sgórbypark* Giacomo Gambaren zuzendaritzapean egindako zikloaren laugarrena da. Ziklo horretan, antzerki inestigazioaz baliatuz, ongiaren eta gaizkiaren arteko aukerak aztertuko dute. Bestalde, mugimenduaren artea da lanerako teknikaren oinarri; arte horretako hainbat teknikatik sakondu dute eta gorputzaren mugimenduek garrantzi handia dute taldearen lan egiteko moduan.

Antzezlanean ezkutuko talde batean jardundako bi kide ohien gora beherak kontatuko dituzte. Esperimentuak egingo dituzte bizi gizon horiekin: klonazioa, zelulen erreproduktzioa...



Agirreazaldegik txapelketatik kanpo

Saio polita egin zuen arren, ez du Ainhoa Agirreazaldegik Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerdietarako sailkatzerik lortu. Final-laurdeneko saioa domekan izan zuen, Zumaiako Maria eta Jose ikastetxean, eta saio hura izan zen erabakigarria finalerdietarako.

Agirreazaldegik beste bost bertsolarirekin batera jardun zuen, eta laugarren geratu zen, 381,5 punturekin. Saioan Arkaitz Goikoetxea sailkatu zen finalerdietarako, 409,5 punturekin. /M.B.


Film laburren emanaldia eguenean Novedades aretoan

M.B.

Udazken Kulturaleko egitarauaren barruan, film laburren emanaldia egongo da eguenean, azaroaren 13an, 20:00etan, Novedades aretoan.

Sei film labur ikusteko aukera egongo da, guztiak iazkoak: Koldo Almandozen *Belarra* (10'); Maru Sorolesen *Dortoka uhartea* (16' 20"); Ane Muñozem *Basurdea* (21'); Aitzol Aramaioaren *Terminal* (11' 21"); Safy Nebbouren *Lepokoa* (23') eta Asier Altunak bergararraren *Topeka* (3' 38").

Sarreraren prezio arrunta 6 eurokoa da; 26 urtetik beherakoendako 4,5 euro da; eta 17 urtetik beherakoendako 2 euro.

Asier Altunak iazko apirilean filmatu zuen *Topeka*, Askizu auzoan.

Roberto Izagirrek irabazi du Ondarroako Gutun Lehiaketa

M.B.

Egubakoitzean banatu zituen Ondarroako *Bolo-Bolo* aldizkariak Azken Agurra Gutun Testamentua lehiaketako sariak. Euskal Herri osoko 41 lagunek hartu dute parte lehiaketan eta irabazlea Roberto Izagirre izan

da. Izagirrek *Mikelena* lanarengatik jaso du saria: 12 urteko gaztea da Mikel, eta amari azken agur gisa gutun bat idatziko dio; antza, bere buruaz beste egiteko asmoa du. Bestetik, Bergarako euskararen idatzitako dago lana eta Izagirrek esan duenez, oso pozik dago sariarekin.



Roberto Izagirre, Fede Badiola aurkezlea eta Leire Bilbao, Ondarroako onena.

KULTURAPILULAK

Etzi, domeka, itxiko dute Sara Otañoren margo erakusketa kultura etxean

Sara Otaño margolariaren pintura erakusketa etzi, domeka, itxiko dute. Hogei lan inguruk osatzen dute erakusketa, eta batik bat bidez osatuta dago. Otañoren esanetan, koloreari garrantzi handia ematen dio; margotzean kolorearekin jolas egiten duela aipatu du eta bere pintura koloretsua definitu du. Erakusketaren ordutegia hau da: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 21:00etara eta bihar eta etzi, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

E, TXO!

GUREGAIK/ INTERNETEKIKO MENDEKOTASUNA

Zaletasuna ala mendekotasuna?


ENEIDA ITURBE

Gero eta denbora luzeagoa ematen dute gazteek Interneten nabigatzen. Bada, kezka garria da hori? Non dago zaletasunaren eta mendekotasunaren arteko muga Internetez ari garenean?

Puntu bat idazten duzun bakoitzean *com* jartzen duzu jarraian? Zure gelatik atera eta, zu ohartu barik, gurasoak etxez aldatu direla konturatu zara? Argindarrak eta telefono linearik gabeko leku batera zoratuta ere ez zinateke joango oporretara? Baiezkoak izan badira zure erantzunak, Internetekiko mendekotasuna duzu.

Gai horren inguruan bromak egitea libre da, baina zenbait aditu arduratzen hasiak dira. Horien iritziz gazte askok zaletasunetik mendekotasunerako pausoa eman dute. Ikerketa baten arabera, Internetekiko mendekotasuna duten gehienak 19 eta 26 urte bitarteko neskek dira. Horiek astean 30 ordu baino gehiago ematen dituzte Interneten konektatuta eta euren inguruko pertsonetatik aldendu egiten dira.

Internet, bideo joko edo poltsikoko telefonoekiko mendekotasuna duzula uste baduzu eta horri aurre egin nahi badiozu, Ekintza Da-Salud elkartera jo dezakezu laguntza bila. Elkartearen Errenterian dago eta hau da euren telefono zenbakia: 943 34 02 02.



MONIKA BELASTEGI

Internetekiko mendekotasuna duten gehienak 19-26 urte bitarteko neskek dira.

LOTSABARIK/ Joseba Muguruza

“Txirrindulari profesional izan nahi nuke”

AINZANE IRIZAR

Josebak zaletasun handi bat dauka: txirrindularitza. Txikitik osabarekin joaten zen lasterketak ikustera; orain, bera ere txirrindularia da. Bere ametsa txirrindulari profesionala izatea da.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
Gorlako bizikleta eta patinete jaitsiera antolatuko nuke; baita skaterako *U* bat jarri ere.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
Surfeko argazkiak.
- Telebistako saio gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Operacion Triunfo ez zait bate-re gustatzen; gustukoena, berriz, *Los Serrano* telesaila.

- Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?
Tamara; gustukoena, berriz, Anjel Alkain aktorea.
- Zerk amorratzen zaitu?
Irakasleak astun samar jartzeak. Eztabaida baten entzuten ez badidate ere amorratzen naiz.
- Zer estimatzen duzu besteengan?
Momentu txarretan ere norberarekin daudela erakustea.
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?
Osasunari eta fisikoari.
- Zure bertute bat? Eta akats bat?


Erraz egiten ditut harremanak, irekia naiz eta ez daukat lotsarik; akatsa, berriz, fisikoa. Potolo samar nago. Gainera, *pijo* samarra naiz.

- Zelan ligatzen duzue gazteok?
Nik neskegana joan eta eurenkin berba egiten dut.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?
90-60-90 neurriak dituena, pertsona irekia eta jenio bizikoa ez dena.
- Nora eta noekin egingo zenuke bidaia bat?
Inor bizi ez den uharte batera; noekin ez dizut esango.
- Etorkizunerako amets bat?
Txirrindulari profesionala izatea.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko hirugarren maila • ZALETASUNAK: Surfa eta txirrindularitza • LIBURU BAT: Ez zait gustatzen irakurtzea • FILM BAT: 'Braveheart' • MUSIKA TALDEA: Gatibu eta Ken7 • KIROL TALDEA: Euskaltel-Euskadi


TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez



GORKA ORTEGA

ZAHARRAKBERRI

Erretiratuen gaineko liburua aurkeztuko dute gaur



Xabier Ibartzabal medikuak jaso du Bergarako erretiratuen egoitzaren historia.



Jose Antonio Zabala alkatea 1979ko mus txapeldunak saritzen. Liburuan azaltzen den argazkietako bat.

EDU MENDIBIL

Gaur, egubakoitza, erretiratuen egoitzaren historia jasotzen duen liburua aurkeztuko dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean. Xabier Ibartzabal mediku donostiarrak idatzi du

Evolución del hogar del jubilado en el contexto social de Bergara. 1972-2002 izenburuko liburua. Bertan erretiratuen elkarteak izan duen ibilbidea jasotzen da, 1972an Aitonak elkarte sortu zutenetik gaur egunera arte. Xabier Ibartzabal medikuak Donostiako Matia Fundazioan dihardu lane-

an. Egileaz gain, Juan Luis Madrazo Diputazioko ordezkaria, Victoriano Gallastegi alkatea eta Imanol Sorondo apaiza egotekokak ziren gaurko aurkezpenean.

BOST EUROTAN SALGAI

Informazioa eskuratzeko orduan, artxiboetara eta ahozko testimo-

nioetara jo du egileak.

Alkartu Naik Aitonak elkarte sortu zuen, eta orduko egoera politiko eta sozialetik abiatuta, erretiratuek herrian izan duten zereginaren berri ematen da liburuan. Gaur egun San Joxep-ek egiten duen lana ere jasotzen da. Ibartzabalek zera dio: "Lan-

horren guztiorren testigantza jaso nahi izan dugu, jendeak erretiratuen zereginaren berri izan dezan". Testuarekin batera liburuak hainbat erretiratu ditu. Hasiara baten liburuaren 1.500 ale kaleratu dira eta 5 eurotan jarriko da salgai, gaurko aurkezpen ekitaldian eta ohiko tokietan.



Hamabostaldiko bazkaria

Antzuolako eta Bergarako erretiratuek Kultur Hamabostaldia agurtzeko bazkaria egin zuten urriaren 25ean. Ehun bat lagun elkartu ziren Tartufo jatetxean eta, hone-lakoetan gertatzen den bezala, umore onean eta jai giroan primeran pasatu zuten. Lagunartean bazkaldu ondoren, hainbat opari zozketatu zituzten bildutakoen artean. Dantzaldirako tartea ere izan zuten. Kultur Hamabostaldia erabat arrakastatsua izan da erretiratuen iritziz. ARGAZKIA: OLAIA MONDRAGON.

LABUR

Urteko azken mendi irteera azaroaren 19an

San Joxepe erretiratuen elkarteak urtean barrena antolatzen dituen mendi irteerekin jarraituz, datorren azaroaren 19an honako irteera egingo dute: San Joxepe, Gabiriako tunela, Mayc-Zurruga-Supide-Lamaño Etxeberri eta San Joxepe. Erretiratuak 16:00etan abiatuko dira euren egoitzatik. Honako hau aurten egingo duten azkeneko mendi irteera izango da eta bazkideei parte hartzeko dei egiten diete.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g Bergara
943 76 07 92

OILAGORRA TABERNA
Barrenkalea 21 BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL EL KOROBEREZIBAR

Iturri horren ondoko zubiak bertan izandako lantegi baten izena darama. Zein?

GALDEDEBALDE

1. Joan urteko ekitaldian, zein izan zen herriko onena Behobia-Donostia lasterketan?
A/ Aitor Eraña.
B/ Jon Arantzabal.
C/ Ribxar Cuevas.
2. Zeinek idatzi du Bergarako erretiratuen egoitzaren historia jasotzen duen liburua?
A/ Vicente Madozek.
B/ Imanol Sorondok.
C/ Xabier Ibartzabalek.
3. Ze ikasketak egin zituen Telesforo Arantzadi bergarar ospetsuak?
A/ Farmazia ikasketak.
B/ Medikuntza ikasketak.
C/ Ingeniaritza ikasketak.

BERGARAROSPETSUAK

Telesforo Arantzadi (1)


KOLDO PEREIRA

Bergaran jaio zen 1860an eta hiru urte besterik ez zuenean, gurasoak Bilbora joan ziren bizi izatera, Telesfororen amonak zeukan gozotegian lan egitera. Farmazia ikasketak egin zituen, zientzia-zalea izateaz gain, bere ezintasun fisikorako (herrena zen) lanbide sedentario egokia iruditu zitzaizolako.

Madrilen, institutuko katedrarako oposizioak prestatzen zebilela, apopilo egon zen, lehengusu Miguel Unamunorekin batera. Zientzien Errege Akademiak saria eman zion *Setas y hongos del País Vasco* ikerlanarengatik, oso azterketa sakona egin zuen-eta. Azalpenen ondoan dauden irudi bikainak ere Arantzadik eginak dira. Horri esker, Madrilgo Natura Zientzien Museoko marrazkilari izendatu zuten.

Alcala kaleko ganbara baten antropologia saila sortu zuen, eta Luis Hoyos eta Manuel Antonekin batera garezurrak sailkatzeari ekin zion, zaletasun hutsagatik, sosik irabazi barik. Lan horren emaitza *El pueblo euskaldun* azterlan zientifikoa jaso zuen. Parisko Antropologia Elkarteak lan hori saritu zuen 1891n.

Parisko Antropologia Elkarteak bere 'El pueblo euskaldun' azterlan zientifikoa saritu zuen



UDAL ARTXIBOA



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IBON ERAÑArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ibon! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa, kanposantuan. Eskumakoa, Gorrako bidean. / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela jabetzatuko du BERRIGARAK asmatzaileron artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Bilore detergentea

18 ontzitxo.

2,09 €

348 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Balorazio nutrizionala
- Dieta pertsonalizatuak
- Etxez-etxeko zerbitzua
- Ikastaroak

(...) mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA
(t) 943 76 60 45
(s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA



BERGARA
Mikel Najera
Azaroaren 10an, 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Andoni.



BERGARA
Unai Zubizarreta
Azaroaren 11an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Uxue.



BERGARA
Mikel Rodriguez
Azaroaren 4an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Itxaso Alberdi
Azaroaren 4an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Itxaso Gantxegi
Azaroaren 7an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Ander Fuentes
Azaroaren 6an, 7 urte.
Urte askotarako!
Familia eta Ana eta Julen.



BERGARA
Ane Mujika
Azaroaren 5an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Unai Etxarri
Azaroaren 8an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mariñe Diaz
Azaroaren 7an, 5 urte.
Zorionak! Iosu, Alatz,
Ibon eta Saioa.



BERGARA
Maika Jaso
Azaroaren 10an, 15 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Andrea
Azaroaren 10an, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Alejandro.



BERGARA
Ane Aramendi
Azaroaren 7an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Antonia Arrieta
Azaroaren 7an, urteak.
Zorionak senarraren
partez!



BERGARA
Elena Etxaniz
Azaroaren 4an, 90 urte.
Zorionak!! Ilobak eta
etxekoak partez.



BERGARA
Gorka Larrañaga
Azaroaren 7an, 7 urte.
Zorionak txapeldun!
Etxekoak, bereziki Josu.

Adi!

Argazkiak emateko
lekuak:
Bergara:
Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola:
Udal Liburutegia,
asteleheneretan
17:00etatik 19:00etara
Elgeta:
Erosle-Baltxongua

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzaz ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze-eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 7610 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ZUHURKI SL

Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003eko azaroaren 7a / 177. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Eneida Iturbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


Herrirako beheko sarrera hobetzeko dirurik ez dagoela dio Diputazioak

ENEIDA ITURBE

Behoko auzoko herrirako sarrera aldatzeko proiektua orain ezin dela aurrera eraman dio Diputazioak, horretarako dirurik ez dago-eta. Arriskua dela eta, Udalak behar-beharrezkotzat jotzen du lan hori, eta presioa egingo du lehenbailehen martxan jar dadin.

Aurreko astean jaso zuen Udalak Behoko auzoko herrirako sarreran obrak egiteko eskaeraren erantzuna. Gipuzkoako Diputazioak ezezkoa eman du, diru nahikoa ez dagoela argudiatuta. Urte batzuk itxaron beharko dira, hortaz, aldaketa egiteko. Baina Udala ez dago batere ados erabaki horrekin, herrirako sarrera orain dagoen bezala oso arriskutsua dela uste du-eta.

Aldaketa egiteko proiektua aspaldi dute prestatuta Diputazioako garraio arduradunek. Obrak egiten direnean, Bergara aldetik datozen autoek herrira sartzeko bi errei gurutzatu beharrean bakarrik gurutzatu beharko dute. Gaur egun eskuinekoa den bidea herrira doazenez itxaroteko erabiliko da; gora jarraitzeko bidea, berriz, Lapatza base-



Behoko auzoko herrirako sarrera arriskutsua da, eta Udalak obrak egin nahi ditu lehenbailehen.

rriari lur zati bat kenduta erakiko da. Hala, arriskua txikitu egingo da; izan ere, hobeto ikusiko dira goitik datozen autoak eta bide bakarra gurutzatu beharko da. Baina, oraingoz, lehen bezala jarraituko du bideak.

HERRI BARRUA ITXITA

Azkenaldian plazatik gora joateko kanpoko bidea erabili beharra dago eta horrek zirkulazioa gehitu du kanpoaldean, arriskuak ere gora egingez. Hala, "egunero izaten du sustoren bat norbaitek",

Jose Angel Zabalo alkateak azaldu digunez.

Behoko auzoko sarrerako obrak Egurribaiako baina beharrezkoago ikusten ditu Udalak, baina Diputazioak haiei eman die lehentasuna.

ELKARTASUNA

Kongora laguntza bidaltzeko kanpaina

ENEIDA ITURBE

Anelkar Antzuolako elkartasun taldeak bost urte beteko ditu azaroan. Urtemuga hori, orain arte bezala, behartsuei laguntzen ospatzea iruditu zaie egokien Anelkarrekoiei. Hala, martxan dute kanpaina berria: hilabete honetan hainbat ekintza antolatuko dituzte Kongorako dirua biltzeko helburuarekin.

18 euroekin hemen ez dago gauza askorik egiterik, baina Kongoko Kanzenia lurraldean

ume bat urte osorako eskolara daiteke. Anelkarrek ahalik eta neska-mutiko gehienei ikasteko aukera eskaini nahi die. Horretarako antzuolarron laguntza beharrezkoa da.

Hurrengo zapatuan, hilak 15, babarrun-jana egingo du Anelkarrek eta nahi duena joan daiteke. 20 euro ordaindu beharko dira eta txartelak liburu dendan eros daitezke. Bestalde, Antzuolako zenbait dendatan kaxak jarriko dira herritarrek Kongorako dirua uzteko.



Azaro amaieran Kongoren gaineko argazki erakusketa antolatuko du Anelkarrek.

LABUR

Umeentzako antzerkia, bihar, zapatua

Antzerki berezia ikusteko aukera izango dute herriko umeek bihar, zapatua, arratsaldeko 18:30ean Orlanen. Irrintzi taldearen antzezlanaren izenburua *Zapatariak eta prakagorriak* da eta Grimm anaien ipuin baten oinarrituta dago.

Zapatari xume batek erregeari oinetakoak egiteko agindua jasoko du. Urduri jarriko da, ardura handia da-eta horrelako lan bat egitea. Baina espero ez zuen laguntza jasoko du, lagun bitxi batzuk gauzez bisita egingo diote-eta.

Zenbaiti ezaguna egingo zaio istorio hori; eta ulertzekoa da, Grimm anaien ipuin klasiko bat da-eta. Hala ere, Irrintzi taldeak era berezian antzeztuko du lana: argi eta itzalekin jolas egingo dute eta, hala, giro berezia sortu umeen gozamenerako.

Eliza garbitzen duten emakumeek afaria izan zuten

Pasa den asteko astelehenean Porresko Martin Deuna garbitzaileen zaindariaren eguna izan zen. Antzuolako eliza garbitzen aritzen diren emakumeek urteak daramatzate egun hori ospatzen, eta hala egin dute orainoan ere.

Astelehen iluntzean 28 lagun elkartu eta afaria egin zuten Larrea tabernan. Egun eliza garbitzen dutenak eta orain artean lan horretan aritu direnak zeuden afarira gonbidatuta eta iluntze atsegina igaro zuten guztiek elkarrekin.

Antzuolan eliza garbitzeaz herriko emakumeak arduratzen dira. Betidanik izan da horrela. Borondatez egiten dute lan hori, ezer kobratu gabe. Auzoka antolatzen dira eta, hala, auzoak txandatu joaten dira. Hamabostean behin emakume taldea joaten da elizara eta hura txukun edukitzeaz arduratu.

ELKARRIZKETA

ITZIAR BARTOLOME/HEZITZAILEA

“Jostailuak umeari eskainiko diona begiratu behar da jostailuak aukeratzean”

ENEIDA ITURBE

Jostailuak izango dira protagonista hurrengo astean herri ikastetxean. Txatxilipurdikoez umeendako tailerrak eta gurasoendako hitzaldia egingo dituzte. Azken hau Itziar Bartolomek egingo du eguaztenez, 18:30ean, eskolan.

Hitzaldiaren izenburua Nola aukeratu jostailu egokia? da. Zeri begiratu behar zaio aukeraketa hori egiteko?

Umeari adinari eta ezaugarriari begiratu behar zaie batez ere jostailua aukeratzekoan.

Jostailu onak eta txarrak daude?

Guk ez dugu epaitzen. Hori umeari eta hark ematen dion erabileraren arabera izaten da. Hala ere, badira batzuk txarrak direnak umei ez dietelako balio aldetik ezer eskaintzen. **Umei ordenagailua ez zaie gehiegi gustatzen?**

Horrelako jolasak izarrak izan dira azken bost urteotan. *Engan-*



GORKA MORRAS

“Gurasoei gomendatzen diegu umearekin jostailuez berba egitea eta jolastea”

txatu egiten dute, baina umeari berez ateratzen zaionez jolas egitea, edozein jostailurekin gozatu du.

Gurasoak arduratzen dira jostailu egokiak erosteaz?

Neure zalantzak ditut. Egundak, gehiegi pentsatu gabe erosten dira. Umeari ekarriko diona begiratu beharrean beste irizpide batzuk jarraitzen dira aukeraketa egitean. Gurasoei gomendatzen diegu denborarekin hartzeko eta umearekin jostailuez berba egitea. Oso garrantzitsua da gurasoek umeari jolasean parte hartzea, umea asko motibatu du eta.

ERRETIRATUAK

Erretiratuek irteera izango dute eguenean

ENEIDA ITURBE

Zenbait irteera izan dituzte urtean barrena herriko erretiratuek. Azkena datorren eguenean (hilak 13) izango da eta, Ezkioko Igarubeiti baserria eta Ormaiztegiako Zumalakarregi Museoa ikusi ondoren, Legazpiko erretiratuen egoitzan merienda egingo dute.

Irteera arratsalde partean izango da. Antzuolan 14:30ean irten eta Ezkiora joango dira erretiratuak. Han Igarubeiti baserria

ikusiko dute. XVI. mendekoa da eta orduko baserri bizitza eza gutzera aparteko aukera eskaintzen du. Ormaiztegiako Zumalakarregi Museoa gure historia pertsonaia horren jantziak, armak eta tresnak ikusteko aukera izango dute erretiratuek.

TXARTELAK SALGAI GAUR ETA BIHAR

Irteerara joan nahi duten erretiratuek txartelak gaur, egubakioz, eta bihar, zapatua, erosi beharko dituzte zortzi eurotan.

KIROLA

Pilota izan zen pasa den asteburuko protagonista

Pasa den asteburuan futbolak ez zien emaitza onik eskaini antzuolarrei eta, pilota izan zen protagonista. Josu Agirre eta Xabier Biterik 22-12 irabazi zieten Aretxabaletako aurkariei. Hala, bikotea orain arteko partidu guztietan atera da garaile.

Herriko pilota txapelketa hasi zen aurreko asteburuan eta orain zapaturu izango dira partiduak. Gogotsu eutsi diote partideek txapelketa horri, urtean barrena ez bezala, pilotan lehiatzeko aukera dute eta orain.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Azaroak 8
12:00: Antzuola-Eibartarrak B (kadet.)
16:00: Antzuola-Ikasberri (Gazteak)

PILOTA

Urriak 11 (Gipuzkoako Txapelketa)
17:00: Olalde-Mundarriz (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Ikasberri 3 Antzuola 0 (2. erreg.)
Antzuola 0 Arrasate 5 (Gazteak)
Antzuola 0 Arrasate 6 (Kadeteak)
Antzuola 0 Zumaia 4 (Neskak)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Aretxabaleta 2-Olalde (eskuz nag.) 12-22
Olalde-Ikaskirola (eskuz kad.) 17-22
Altzaparra 2-Olalde (paletaz nag.) 34-35

IRAKURLIAREN TXOKUA

EZ DA ETORRIKO

Euskal herri honek goi mailako kirolari ugari eman ditu azkeneko hamarkadetan, zaleon gozamenetarako. Nahiz eta eragozpen asko gainditu behar izan, horra hor Igor Astarloa ermuarra, oztopo eta arerio guztiak gainditu eta menderatu ondoren, munduko txapeldun.

Baina, hori egun baten gertatu izana ez da txiripa, bere lanaren eta inguruko lanaren ondorio baizik; nahiz eta batzuk bide hori jorratzen asko lagundu ez.

Garaipen garrantzitsu horretan, bakoitzak jakingo du zer aportatu duen, baina domina lortu eta etxeratzean egindako harrerak eta lorpenak eman zigun pozak, seguru asko, ezer aportatu gabek ere mugituko zituen aulkitik edo zeuden lekutik.

Dena den, bere ortzardun mailota soinean duela ibiliko da datorren denboraldi osoan munduan zehar, baina Antzuolara ez da etorriko Debarroko euskaraz mintzatzen den munduko txirindularirik ospe-suenetako. Bera gertutik ikusi, hitz egin edo neska-mutiko koskorren batzuei autografoak sinatu.

Ez, ez dugu zori hori izango, alferrik baita Euskal Bizikletaren etapa bat herrian bukatzeko zaletu talde batek egindako ahalegina, egun baterako diru kopuru handiegia, baina egun askotako lana azaltzeko erakustokia.

Orain Igorrek ez du laguntza beharrik, baina jarrera horrek beste askoren ateak itxi edo zailtzen ditu, etorkizunean gure artean goi mailako kirolariak edukitzeko, alegia. Hala ere, neure eta taldearen zorian beronek Igorrentzat, ahal den neurrian aportatzen jarraitzeko konpromisoarekin batera.

JESUS KORTABARRIA
"KAXETA"

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaza

Zoruen kutxilatatu
eta
barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaza

Apainketarako eta
industriarako pinturak

Paper margotzak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003eko azaroaren 7a / 161. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

The screenshot shows the website for Elgetako Udala. The main heading is 'Elgetako Udala' with a search bar and navigation links. A prominent event is 'Helduentzako lau t'erdiko pilota txapelketa' (Open to all 1/4 pilot tournament) scheduled for October 31st at 20:30. Other events include 'Baserritarren batzordea' and 'Asteburuan helduen lau t'erdiko pilota txapelketako partiduak jokatuko dituzte'. A sidebar contains 'tourist information' and a calendar for the month of October 2003.

Webgunera harpidetutako albisteak argitaratu ahala jasotzen dituzte beraien ordenagailuan.

Udal webgunek 27.000 bisitatik gora urtebetean

AMAI LEIBAR/IRATI AGIRREAZALDEGI

Datorren azaroaren 10ean beteko da urtebete Elgetako Udala webgune berritua aurkeztu zuela. Goienak kudeatzen duen gunea herria eta bertako berriak sare bidez zabaltzea du helburu, eta urtebetean 27.000 bisitatik gora jaso ditu.

Elgetako Udalaren webgune berritua 2002ko azaroaren 10ean aurkeztu zuten, orain dela urtebete. Denbora horretan, erabiltzaileek erantzun ona eman dute. Hau da, bisiten eta orri ikusien kopuruek gora egin dute pixkanaka. Azken hilabeteetan, irailan eta urrian, batez ere kopuruek izugarritzko gorakada izan dute.

Webgune dinamikoak da www.elgeta.org helbidean aurki dezakeguna. Edukiak eguneratuz, albiste berriak argitaratuz eta informazioa e-posta bidez banatuz lortzen du dinamikotasun hori. Urte honetan 200 albistetik gora sartu dituzte. Harpideek, gainera, webgunean ipini ahala jasotzen dute albiste bakoitza

euren posta elektronikoan. Webgunean bertan interesatuek harpidetza egiteko aukera dute.

Urrian ia 4.000 bisita izan ditu webguneak eta irailan jasotako kopurua ere antzerakoa da. 2002ko abendutik gaur egunera 27.198 aldiz sartu dira webgunea ikustera.

Googlen egindako bilaketa bidez iritsi dira erabiltzaile gehienak Elgetako Udalaren webgune. Esaterako, urrian, *Pangea*, *bidai kontinenteen hondora (I)* ikus-entzutezkoaren inguruko albisteak hainbat bisitari erakartu zituen, *Google*-n eskatutako bilaketen emaitzetan Elgetako webgunea azaltzen zen-eta.

Goiena Komunikazio Zerbitzuek lantzen dute edukia, bai atal finkoa baita albistegia eta agendea.

Elgetako web gunea hurbilago dago New York-ekotik Euskal Herriko beste batzuetatik baino

da ere. Udalerria Web Plataforma erabiliz egindako webgunea da. Zope sistemarekin garatzen da eta kudeaketa azkar eta dinamiko ahalbidetzen du.

UDALAK MEREZITAKO WEBGUNEAK

Elgetako webgunea munduan oso erabilia den sistema batekin egina dago. Gainera, punta-puntako herri eta hiriek dute oinarrian Elgetak duen kudeaketa sistema bera; besteak beste, Suediako bigarren hiri den Goteborg-ek eta New Yorkek. Dinamikotasunean ez ezik funtzionalitatean eta itxuran ere hurbilago dago Elgeta New Yorkeko webgunetik Euskal Herriko beste askotatik baino.

Lehenengo urteari buruzko balorazioa eskatuta, Elgetako alkateak positiboa dela esan digu: "Gero eta jende gehiago ibiltzen da Interneten. Kanpoan bizi diren herritarrek zein Elgetan bertan daudenek webgune hau kontsultatzen dute hemengo berri izateko. Laster, egunkaria erostea edo irratia piztea bezalakoa izango da webgunera berrien bila jotzea, eta informazioa momentuan jasoko dute, gainera".

KULTURA

Joxemari Carrereren ipuin kontaketa

I.A.


Haurren eta gaztetxoaren artean irakurzaletasuna suspertzeko asmoz, hainbat ipuin kontaketa saio antolatu dituzte.

Lehenengo emanaldia datorren barikuan, azaroaren 14an, izango da, arratsaldeko 18:00etan, liburutegian.

Gonbidatutako ipuin kontalaria Joxemari Carrere da. Oretarrak 2002an estreinatutako *Izena duen guztia da* ikuskizuna aurkeztuko du 10 urtetik gorakoendako. Euskal Herriko ipuinen bidez, elgetarrak ipuinen herrialde mirengarrian sartzea izango da bere helburua.

Izan ere, zera dio Carrerek berak: "Herri tradizioetik heldu zaigun altxorra egungo jendeari egokitzea izan da nire asmoetako bat; erakutsi nahian ipuina garaietara egokitzen den kultura adierazpena dela".

Horrela, bada, ipuin kontalaritza egungo garaietara egokitu nahi izan du, baita ahozkotasunaren bidez ezberdinak arakatu ere.



Joxemari Carrere ipuin kontalaria.

EMANALDI GEHIAGO

Joxemari Carrereren ipuin kontaketa saioa irakurzaletasuna bultzatzeko aurten egingo den lehendabizikoa izango da, eta horren ostean emanaldi gehiago izango dira.

Oraindik zehazteke dago nortzuk izango diren ipuin kontalarriak, eta saioak zein egunetan diren ere ez dute aurreratu. Hala ere, eguna heldu ahala emango dizuegu ekitaldien berri.

LABUR

Alkoholiko Anonimoen hitzaldi irekia izango da datorren eguaztenean

Datorren azaroaren 12an, eguaztenean, Alkoholiko Anonimoen hitzaldia izango da, arratsaldeko 20:00etan, Eskola Zaharreko lokalean. Alkoholiko Anonimoen elkarteak urtean hainbat bilera egingo ditu eta Elgetako zein inguruko kideak elkartzen dira. Hitzaldi hori, ordea, herritar guztiendako irekia izango da. Mundu mailako elkarte horren helburua alkoholaren mende bizi direnei hortik ateratzen laguntzea da.

Goibeko elkarteak Gabonetako loteria salduko du herriko taberna eta dendetan

Gabonetako loteria txartelak ipini ditu salgai herriko tabernetan eta dendetan Goibeko kultura elkarteak. 53.103 da aurtengo zenbakia eta txartel bakoitzak bost euro balio du. Elgetar batek bakoitza gehiagok gogoan izango du seguru aski iazko Gabonetan Goibeko elkartearen loteria txartelak saria jaso zutela; dezimo bakoitzak 220 euro, hain zuzen ere. Bestalde, Goibeko kultura elkartetik jakinarazi digutenez, aurki hasiko dira 130 bazkideei urteko kuota kobratzen.

ELKARRIZKETA

ALBERT ESPINAL/'QUAD' ZALEA

"Euskal Herria paradisia da 'quad'-ean ibiltzeko"

Kataluniar hau Elgetan bizi da azken hilabeteotan. Hemen gustura bizi dela esan digun arren, kanporako joera handia du. *Quad* motoa hartu eta bidaia asko egin ditu, ez edonora, gainera. Herrialde asko bisitatutakoa da.

Kataluniarra zara. Nolatan Elgetan?

Lana dela-eta etorri nintzen orain dela zazpi hilabete. Oso gustura nago hemen. Herria bera gustuko dut, baita jendea ere, eta euskara ikasten hasi naiz.

Kataluniatik Elgetara ez ezik, beste bidaiarik ere egin duzu, eta motoan, gainera.

Bartzelonatik Gambiara joan nintzen *quad* erako motoan. Espainia, Maroko, Mendebaleko Sahara, Mauritania eta Senegal igarota Gambiara heldu nintzen eta han buelta emanda Dakarren motoa saldu nuen.

Nola bururatu zitzaizun bidaia hori egitea?

Bidaiatzea gogoko dut, baita Afrika bera ere. Gainera, moto

horiek poliki bidaiatzeko aukera ematen dute, eta horrela herrialdeak eta jendea ezagutzen ditut. Gainera, aurrez inork egin gabeko bidaia zen. Desertua traktore moduko baten zeharkatzea esperientzia polita da.

Zer aurkitu duzu bidaietan?

Bizitzan gertatu zaidan onena eta txarrena. Mauritania hiltzeko arriskuan izan nintzen, harea mugikorretara jausita. Baina gauza politak ere bizi izan ditut: jendea ez ezik nire burua ere ezagutu dut. Afrikara bakarrik joatean barne bidaia egin dut.

Antzerako beste bidaiarik egin duzu sekula?

Bai. *Land rover* zahar batekin iaz abentura bidaia bat egin nuen, lagun talde batekin.

"Mauritanian hiltzeko arriskuan egon nintzen, harea mugikorretara jausita"

Beti bidaiatzen duzu *quad*-ean?

Autoa eta *quad* motoa probatuta, *quad*-ak aukera gehiago ematen dituela uste dut. Eta mekanika aldetik sinpleagoa da.

***Quad*-ean ibiltzeko nolako bideak daude inguruan?**

Paradisia da. Mendiko pistentan ibiltzea zoragarria da, betiere ingurumena errespetatuta. Arraroa iruditzen zait oraindik hemengo bide eta mendietan *quad* askorik ez ikustea, baina hemendik gutxira ziur naiz zale asko izango dituela garraibide horrek Elgeta inguruan.

Badakazu horrelako beste bidaiarik egiteko asmorik?

Lehen egin nuenaren antzerako bidaia bat egin nahi dut, baina oraingoan lagun talde batekin. Edozelan ere, abentura espirtua galdu barik. Ibilbide konplikatu egitea da nire nahia, garen bidean dauden herrialdeak zeharkatuta. Garai bateko Camel Trophic lasterketa erreperatuz-edo. Norbaitek nirekin etorri nahi badu Elgetan aurkituko nau, eta nirekin harremanetan jartzeko Maiarren tabernara joan besterik ez du.



BASERRIA

Uriarte auzora aurki iailegatuko da ura


Baserritarren batzordeak bilera izan zuen astelehenean eta bertan hainbat proposamen mahai gaineratu zituzten. Uriarte auzoko ur hornidura, Sesto Gain baserriko bidearen konponketak eta Aixolako bidearen garbiketa izan ziren hizketagai.

Uriarte auzora ura eramateko lanen lehenengo fasea hastear da. Bileran, lanen berri emateaz

gain, baserri bakoitzak ordaindu beharrekoa zehaztu zuten: 1.200 euro, hain zuzen ere. Baina hutsik dauden baserrietakoek ordaindu beharreko diru kopurua handiagoa izango da.

Bestalde, aditzera eman zuten Sesto Gain baserrira doan bidean zulo asko dagoela eta azaroan egingo dituztela konponketak. Horiek, hain zuzen ere, 1.200 euroko kostua izango dute.

Azkenik, Aixolarako bidea garbitzeko lanen hasierako kostua txikituz egingo dela esan zuten.



Lehen fasean baserribatuetako ur horniketa egingo dute, gero besteetakoa.

PILOTA

PARTIDUAK

AZAROAK 7, BARIKUA

21:30: Txapel/Koldo-J.R. Irazabal/I. Izagirre

Ondoren, A. Arantzabal/A. Telleria-Sesia/Satur

AZAROAK 9, DOMEKIA

11:30: M. Larrea/M. Arkarazo-A. Morales/F. Zenitagoia

Ondoren, M. Arantzeta/J.M. Arantzeta-I. Ugarteburu/Anton

Ondoren, I. Gorostiza/F. Olaortua-Otxoa/M. Elgoro

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ILE
ILE APAINDECIA



Azaroaren 12an zabalik!

Plaza Andra Mari 2
Tel. 943 76 81 97
20690 Elgeta



BOLINAGA METALAK

SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Seminarioko
ikasle talde
bat, 1913

Aurreko asteotan Eustakio Agirreolearen (1867-1952) ibilbidearen berri eman dizuegu *Bergarar ospetsuak* izenburuko atalean. Barrenkaleko 19. zenbakian zabaldu zuen negozioan argazki-tailerra ere bazuen, eta berari zor diogu XX. mende hasierako Bergarako irudi asko eta asko.

Alboko argazkia Seminarioko ikasleei 1913. urtearen inguruan ateratakoa da. Hor azaltzen direneta-tik hainbat ezezagunak dira:

Aurreko ilaran: Jose Maria Gonzalez Bastida, Ramon Gonzalez Bastida, Claudio Larrañaga, Luis Muxika, Miguel Camacho, ezezaguna, Emilio domingotarra, Jose Mari Gonzalez, Jose Mari Alberdi, Jose Mari Lonbide, ezezaguna, Estanislao Ezenarro eta Julian Garate.

Bigarren ilaran: Eusebio Camacho, ezezaguna, Jesus Sañudo, ezezaguna, Txomin Amasorrain, *Uritxa*, ezezaguna, ezezaguna, *Ilunbe*, Paco Movilla, Aurelio Gonzalez, ezezaguna, ezezaguna, Graciano Garate eta Feliciano



Sustaeta.

Hirugarren ilaran: Juanito *Porru*, Elias Garate, Jose Antonio Artetxe, Intxausti, ezezaguna, ezezaguna, Candido Sarasola, Santi Amutxastegi, ezezaguna, *Txarles* eta Roman Sañudo.

Laugarren ilaran: Jose Mari Arrese, Hipolito Muxika, ezezaguna, Lazpiur. Gainerako guztiak ezezaguna.

nak dira. Baliteke ezezagunetako batzuk Seminarioko barneko ikasleak izatea. Argazkian ikusten denez, ikasleek ez daukate Seminarioan ikasten zutenen ohiko uniformeak.

Argazkia: Eustakio Agirreolea (Udal Artxiboa).

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Oxirondo
plaza

Oxirondo plazak erabateko itxuraldaketa izan du azken urteotan. Plaza egin aurretik autoen aparkalekua izan zen urtetan. Horren aurretik, asfaltatzeke zegoena, idien proba leku ere izan zen behin baino gehiagotan. Idi-demak jokatu izan dira Kataibian 1970eko hamarkadan, urrunegi joan barik.

Gaur egun, berriz, azoka ondoko Oxirondo plaza guztiz berrituta azaltzen zaigu.



≈ 1995

Orain dela gutxira arte autoak aparkatzeko tokia zen Kataibiako Oxirondo plaza, Santa Marina parrokiaren atzealdean dagoena.



2003

Azoka ondoko Oxirondo plaza erabat berritu zuten joan zen urtean. Lehen faltan sumatzen zen argiteria ere jarri zuten.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65**ETXAGI
JATETXEA**AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12**U**
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE**MUJIKA FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROTZEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA


Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



GAZTAINAK BERO BERO ETA GU EUSKARAZ EGUNERO!

Gaztaina erre eguna azaroaren 14an ospatuko dugu San Martin eskolan



Arratsaldeko 16:00etan ikasle eta irakasleok patioan elkartuko gara gaztainak jateko



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

BERGARAKO IKASTETXE PUBLIKOAK



San Martin Agirre
herri eskola



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

CDTI Corsa berria Aitzakia ona beharko duzu gelditzeko



Orain, **50.000 km.**
zure CDTI Corsa berriarekin erregaia doan.*

Badator Corsa berria, kanpoaldeko diseinu berriarekin eta Diesel Common Rail Turbo Injekziozko 1.3 CDTI 70 ZP eta 1.7 CDTI 100 ZP motor berrien potentziarekin. Eraman ezazu Corsa CDTI berria eta 50.000 kilometrorako erregaia opari egingo dizugu, sekula gera ez zaitezten.

*Eskaintza ez metagarria beste promozio batzuetarako. Hil bukaerara arteko promozioa Penintsulan eta Balear Uharteetan CDTI Corsa 04 urteko modeloon. Promozio berrmatua 50.000 kilometrorako, 4,5etik 4,8rako kontsumo misto eta homologatuarekin eta 0,7 euro l/gasolioko batez besteko kostuarekin. CO₂ emisioa (g/Km) 122tik 130era.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. **BERGARA**
www.giauto.es